DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, MEDIO RURAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

Con un presupuesto de 70.396 miles de euros, ha reconocido obligaciones por importe de 65.570,64 miles de euros lo que representa un nivel de ejecución del 93,14%.

Realizando un **ANÁLISIS POR CAPÍTULOS** llegamos a las siguientes conclusiones:

El **Capítulo II** tiene un presupuesto total de 5.670,56 miles de euros y una ejecución de 5.557,58 miles de euros (98%).

Destacan las siguientes partidas:

- ◆ En el programa “**Fomento producción y sanidad animal**” (1.273,66 miles de euros), la “Recogida, transporte y transformación de animales muertos”, por importe de 430,16 miles de euros, las “Funciones oficiales veterinarias” por importe de 212,15 miles de euros, la “Campaña de saneamiento” por importe de 211,18 miles de euros, y la “Identificación ganadera” por importe de 135,84 miles de euros.



- ◆ “**Mendiak eta Habitaten Kudeaketa**” programan (830,90 mila eurokoak), “Erreten taldeak” partida (166,57 mila euro), “Bertako ibilgailuak” partida (126,51 mila euro), eta “Garraio-materiala”-ri zuzendutako partida (83,77 mila euro).

IV Kapituluak 25.172,03 mila euroko aurrekontua du, eta bere exekuzioa 24.082,78 mila eurokoa da (%95,67).

Kapitulu honetan nabarmenak dira:

- ◆ “**LK-Lurraldearekiko Konpromezua**” programan (10.676,82 mila euroko kopurua):
 - Gipuzkoan persona eta empresa parte-hartzaileak sustatzeko dirulaguntza lerroak, 822,38 mila euro.
 - Gipuzkoaren sustapen ekonomikoa bultzatzea eskualde ikuspuntuaren ekarpenaren bidez izeneko dirulaguntza lerroak, 693,01 mila euro.
 - Hurrengo dirulaguntza zuzenak: Donostiako Sustapena, S.A. 250 mila eurokoa, ELKARGI, SGR, 300 mila eurokoa eta FICOBA- Nazioarteko Feria 275 mila euro.
 - Dirulaguntza izendunak: Ficoba Fundazioa, fundazioaren funtzionamendu gastoak finantzatzeko (150 mila euro) eta Bic Gipuzkoa Berrilan, S.A. empresa eta berrikuntza teknologiko zentroa bultzatzeko (430 mila euro).
 - ZIUR Fundazioa (287,88 mila euro) eta Fundación ADINBERRI Fundazioari (114,20 mila euro) onartutako dirulaguntzak.
- ◆ “**Landa Garapena eta Nekazal Egiturak**” programan (6.318.98 mila eurokoak):
 - Mendi nekazaritzako zonaldeetan eta muga natural esanguratsuak dituzten zonaldeetan dauden nekazaritzak
 - ◆ En el programa “**Montes y Gestión de Hábitats**” (830,90 miles de euros), la partida “Cuadrilla de retenes” por importe de 166,57 miles de euros, la partida destinada a “Vehículos propios” por importe de 126,51 miles de euros y la destinada a “Material de transporte” por importe de 83,77 miles de euros.

El **Capítulo IV** tiene un presupuesto de 25.172,03 miles de euros y una ejecución de 24.082,78 miles de euros (95,67%).

En este capítulo destacan:

- ◆ En el programa “**LK-Compromiso con el Territorio**” (10.676,82 miles de euros):
 - Las líneas de ayudas que tienen como objeto la promoción de personas y empresas participativas en Gipuzkoa, por importe de 822,38 miles de euros.
 - Las líneas de ayudas para impulsar la promoción económica de Gipuzkoa a través de la contribución de la perspectiva comarcal por importe de 693,01 miles de euros.
 - Las subvenciones directas siguientes: Fomento de San Sebastián, S.A., por importe de 250 miles de euros, ELKARGI, SGR, por importe de 300 miles de euros y a Ficoba – Feria Internacional por importe de 275 miles de euros.
 - Como subvenciones nominativas la otorgada a la Fundación Ficoba para financiar los gastos de funcionamiento de la Fundación (150 miles de euros) y Bic Gipuzkoa Berrilan S.A. con el objeto de promover el centro de empresas e innovación tecnológica (430 miles de euros).
 - Las subvenciones otorgadas a ZIUR Fundazioa (287,88 miles de euros) y a la Fundación ADINBERRI Fundazioa (114,20 miles de euros).
- ◆ En el programa “**Desarrollo Rural y Estructuras Agrarias**” (6.318.98 miles de euros):
 - La línea subvencionable destinada a indemnizaciones compensatorias que se otorgan a los titulares de explotaciones



ustiapenetako titularrei zuzendutako kalteordainketetarako dirulaguntza lerroa 3.000,78 mila euroka.

- Ingurugiroa babesteko exijentziekin eta natura ingurunea zaintzearekin bateragarri izango diren produkzio metodoak sustatzeko dirulaguntzak (nekazaritza eta ingurumeneko neurriak), 1.010,34 mila euro.
 - “Gazte Plana” aurrekontu sailak 578,69 mila euro.
 - Landaola Fundazioari eskualdean landa aldeen garapen osoa bultzatzeko 659,55 mila euroko dirulaguntza izenduna.
- ♦ “Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sustatzea” programan (1.326,63 mila euro) bi dirulaguntza izendun hauek dira esanguratsuak: 526,63 mila euroka, Donostia International Physics Center eta 490 mila euroka, Fundación Biozientziak Gipuzkoa fundazioari biozientziaren alorreko oinarri teknologikoko empresa berriak sustatzeko.
- ♦ En el programa “Promoción de la Ciencia, la Tecnología y la Innovación” (1.326,63 miles de euros) destacan las dos subvenciones nominativas otorgadas a Donostia International Physics Center, por importe de 526,63 miles de euros y a la Fundación Biozientziak Gipuzkoa fundaziona, por importe de 490 miles de euros para el impulso de nuevas empresas de base tecnológica del sector de las biociencias.

VI. kapituluak 3.741,52 mila euroko aurrekontua du, eta bere exekuzioa 3.214,82 mila euroka da (%85,92).

Kapitulu honetan nabarmentzekoak dira:

- ♦ “Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralte Orekako Zerbitzu Orokorrak” programan (980,94 mila euro), aplikazio informatikoen erosketa, 949,56 mila euro.
- ♦ “Mendiak eta Habitaten Kudeaketa” programan (1.862,81 mila euro), “Bestelako Ibilgetu materiala” partida loteslea dago (1.236,80 mila eurokoak). Partida honen barne hurrengo partidak daude, besteak beste, basolanak, basoherribitze lanak eta aterabide lanak; larreen hobekuntza; erabilera publikoko bideen obrak; parkeetara sarbideen obrak; Gipuzkoa eta Arabako Partzueroko hobekuntza lanak;...

agrarias ubicadas en zonas de agricultura de montaña y otras zonas con limitaciones naturales significativas del Territorio Histórico de Gipuzkoa, por importe de 3.000,78 miles de euros.

- Las ayudas para fomentar métodos de producción agraria compatibles con las exigencias de protección del medio ambiente y conservar el espacio natural (medidas agroambientales), por importe de 1.010,34 miles de euros.
- Las partidas de “Gazte Plana”, por importe de 578,69 miles de euros.
- Subvención nominativa a Landaola Fundazioa para contribuir al desarrollo integral de las áreas rurales, por un importe de 659,55 miles de euros.

- ♦ En el programa “Promoción de la Ciencia, la Tecnología y la Innovación” (1.326,63 miles de euros) destacan las dos subvenciones nominativas otorgadas a Donostia International Physics Center, por importe de 526,63 miles de euros y a la Fundación Biozientziak Gipuzkoa fundaziona, por importe de 490 miles de euros para el impulso de nuevas empresas de base tecnológica del sector de las biociencias.

El **Capítulo VI** tiene un presupuesto de 3.741,52 miles de euros y una ejecución de 3.214,82 miles de euros (85,92 %).

En este capítulo destacan:

- ♦ En el programa “Servicios Generales de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial” (980,94 miles de euros), la adquisición de aplicaciones informáticas, por importe de 949,56 miles de euros.
- ♦ En el programa “Montes y Gestión de hábitats” (1.862,81 miles de euros), la partida vinculante “Otro inmovilizado material”, por importe de 1.236,80 miles de euros, entre las que se encuentran las partidas de trabajos selvícolas, de repoblación y vías de saca; mejora de pastos; obras en caminos de uso público; obras en senderos y paseos accesibles; trabajos de mejora en la Parzonería Gipuzkoa y Araba;...



VII Kapituluak 23.129,77 mila euroko aurrekontua du, eta bere exekuzioa 20.784,31 mila eurokoak da (%89,86).

Kapitulu honetan nabarmenak dira:

♦ “Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sustatzea” programan (4.762,22 mila euroko kopurua):

- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sarea laguntzen jarraitzen da, Zientzia, Teknologia eta berrikuntzako azpiegiturak laguntzeko, 4.161,17 mila eurorekin.
- Fellows Programa helburu duten dirulaguntza lerroak, atzerrian dauden ikerlariak kontratatzeko, 361,05 mila eurokoak.
- CIDETEC Fundazioari onartutako dirulaguntza, 200 mila euroko kopuruarekin.

♦ “Landa Garapena eta Nekazal Egiturak” programan, (3.317,38 mila eurokoak):

- Nekazaritza ustialeku en egiturak hobetzeko gaur eguneko beharretara egokituak eta lehiakorrik izan daitezen, 2.659,24 mila euroko dirulaguntza lerroak.
- Landaola Federazioa, gizarte ekipamenduak eta azpiegitura hobetzea sei eskualdeetara, 619,76 mila euroko dirulaguntza izenduna.

♦ “Mendiak eta Habitaten Kudeaketa” programan (4.592,05 mila eurokoak):

- Baso-berritzea eta baso-azalaren sorkuntza helburu duten dirulaguntza lerroa, 1.250,83 mila eurokoa.
- Suteak lehengoratzeko dirulaguntza lerroak, 1.046,01 mila eurokoa.
- Suteei aurre egiteko dirulaguntza lerroak, 685,96 mila eurokoa.

El **Capítulo VII** tiene un presupuesto total de 23.129,77 miles de euros y una ejecución de 20.784,31 (89,86%).

En este capítulo destacan:

♦ En el programa “Promoción de la Ciencia, la Tecnología y la Innovación” (4.762,22 miles de euros):

- Se continúa con el apoyo a la Red de Ciencia, Tecnología e Innovación, para apoyar a las infraestructuras de ciencia y tecnología e innovación, con un importe de 4.161,17 miles de euros.
- La línea de ayudas que tiene por objeto el Programa Fellows, para contratar investigadores en el extranjero, por importe de 361,05 miles de euros.
- La subvención concedida a la Fundación CIDETEC, por importe de 200 miles de euros.

♦ En el programa “Desarrollo Rural y Estructuras Agrarias”, (3.317,38 miles de euros):

- Las líneas de ayudas para subvencionar las mejoras estructurales de las explotaciones en aras a la modernidad y competitividad, por importe de 2.659,24 miles de euros.
- La subvención nominativa concedida a Landaola Federazioa, para la mejora de equipamientos sociales e infraestructuras en las seis comarcas, por importe de 619,76 miles de euros.

♦ En el programa “Montes y Gestión de Hábitats” (4.592,05 miles de euros):

- La linea subvencionable que tiene por objeto la reforestación y creación de superficies forestales, por importe de 1.250,83 miles de euros.
- La línea de ayudas para la restauración de incendios por importe de 1.046,01 miles de euros.
- La línea de ayudas para la prevención de incendios por importe de 685,96 miles de euros.



- Enirio Aralar Mankomunitateari dirulaguntza izenduna, 200,00 mila eurokoa.
- ◆ “**Lurralde Oreka**” programan (3.892,04 mila eurokoa):
 - Landa bideentzako dirulaguntza Ierroak zenduna, 1.634,51 mila eurokoa.

VIII. kapituluak 160,00 mila euroko aurrekontua du, eta bere exekuzioa 150,00 mila eurokoa da (%93,75), BIC’s enpresetan kapital erosketaren partidari dagokiona, “**LK-Lurraldearekiko konpromezua**” programaren barne.

MUGIKORTASUNEKO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DEPARTAMENTUA

Departamentuaren aurrekontu osoa **60.712,70** mila eurokoa da, eta **48.272,16** mila euroko obligazioak onartu ditu, hau da, **%79,51**.

KAPITULUEN ANALISIA eginda, hurrengo ondorio hauek ditugu:

II. kapituluak 5.100,89 mila euroko aurrekontua du eta bere exekuzioa 4.784,04 mila eurokoa da (%93,79).

Kapitulu honetan esanguratsuak dira:

- ◆ “**Garraioaren Antolamendua**” programan (2.366,63 mila eurokoak):
 - “Lurraldebus gunearen kudeaketako” partida, 1.070,60 mila euro.
 - “Atotxako autobusen geltokiaren kanon” partida, 926,57 mila euro.
- ◆ “**Plangintza eta Lurzoruanen eta Ondarearen Kudeaketa**” programan (605,65 mila eurokoak):
 - Udaletako tributuak (kudeaketa zentralizatutako gastuak) partida finantzatzeko, 463,08 mila eurokoa.
 - “Eraikinen Komunitatea” (kudeaketa zentralizatutako gastuak) partida finantzatzeko, 117,90 mila eurokoa.

- Subvención nominativa a la Mancomunidad de Enirio Aralar, por importe de 200,00 miles de euros.
- ◆ En el programa “**Equilibrio Territorial**” (3.892,04 miles de euros):
 - La linea de ayudas para caminos rurales, por importe de 1.634,51 miles de euros.

El **Capítulo VIII** tiene un presupuesto total de 160,00 miles de euros, y una ejecución de 150,00 miles de euros (93,75 %), que corresponde a la partida “Adquisición de capital en BIC’s”, incluida en el programa “**LK-Compromiso con el Territorio**”.

DEPARTAMENTO DE MOVILIDAD Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

Con un presupuesto total de importe **60.712,70** miles de euros, ha reconocido obligaciones por un total de importe **48.272,16** miles de euros; es decir, **79,51%**.

Realizando un **ANÁLISIS POR CAPÍTULOS** llegamos a las siguientes conclusiones:

El **Capítulo II** tiene un presupuesto de 5.100,89 miles de euros y una ejecución de 4.784,04 miles de euros (93,79%).

En este capítulo destacan:

- ◆ En el programa “**Ordenación del Transporte**” (2.366,63 miles de euros):
 - La partida destinada a “Gestión de Lurraldebus gunea”, por importe de 1.070,60 miles de euros.
 - La partida “Canon de la estación de autobuses de Atotxa”, por importe de 926,57 miles de euros.
- ◆ En el programa “**Planificación y Gestión del Suelo y Patrimonio**” (605,65 miles de euros):
 - La partida destinada a tributos locales (gasto de gestión centralizada), por importe de 463,08 miles de euros.
 - La partida destinada a “comunidad de edificios” (gasto de gestión centralizada), por importe de 117,90 miles de euros.



- ◆ “**Arkitektura**” programan (662,70 mila euro), “Eraikinak eta bestelako eraikuntzak” partidari dagokio, 651,05 mila eurokoa.

IV. kapituluak 36.667,75 mila euroko aurrekontua du eta bere exekuzioa 32.423,86 mila eurokoa da (%88,43).

Kapitulu honetan hurrengo hauek dira nabarmenak:

- ◆ “**Garraioaren Antolamendua**” programan (32.270,58 mila euro), hain zuzen ere, “Txartel bakarra”ren sistema dela eta, nabarmentzekoa da emakidadun enpresei 30.151,26 mila euroko diru kalteordaina.

Horrez gain, hurrengo partida hauek esanguratsuak dira:

- Urteko gasto arruntak finantzatzeko helburuarekin Gipuzkoako Garraio Lurralde Agintaritza Partzuergoari onartutako 1.368,75 mila euroko transferentzia.
 - Donostiako Udalari onartutako 650,00 mila euroko dirulaguntza izenduna, Lurradebusen garraio publikoaren eskaintza handitzeagatik udalaren dirusarreretan gertatutako murizpena konpentsatzeko.
 - Ortzibia, S.L. sozietateari onartutako dirulaguntza izenduna, 2018.urteko ekarpena izanik, 30,00 mila eurokoa.
- ◆ “**Pasaialdeko Antolaketa eta Sustapena**” programan (102,78 mila euroka), hurrengo dirulaguntza hauek dira esanguratsuak:
 - Fomento de San Sebastián, S.A. 2017 (9,71 mila euro) Smart Commerce Donostia-Ekialdea izeneko proiektuko gastuak modu partzialean finantzatzeko.
 - Oarsoaldea, S.A. (93,06 mila euro), hainbat jarduketa partzialki finantzatzeko helburuarekin.

VI. kapituluak 8.861,24 mila euroko aurrekontua du eta bere exekuzioa 3.608,90 mila eurokoa da (%40,73%).

- ◆ En el programa “**Arquitectura**” (662,70 miles de euros), la partida de “Edificios y otras construcciones”, por importe de 651,05 miles de euros.

El **Capítulo IV** tiene un presupuesto de 36.667,75 miles de euros y una ejecución de 32.423,86 miles de euros (88,43%).

En este capítulo destacan los siguientes:

- ◆ En el programa “**Ordenación del Transporte**” (32.270,58 miles de euros), cabe destacar la Indemnización a las empresas concesionarias del sistema del “Billete único”, por importe de 30.151,26 miles de euros.

Además, destacan las siguientes partidas:

- La transferencia al Consorcio de Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa, que tiene como finalidad financiar los gastos corrientes del Consorcio, por importe de 1.368,75 miles de euros.
 - La subvención nominativa concedida al Ayuntamiento de Donostia para financiar la disminución de ingresos derivada del incremento de la oferta de transporte público de Lurradebus, por importe de 650,00 miles de euros.
 - La subvención nominativa concedida a Ortzibia, S.L. consistente en la aportación correspondiente al año 2018 a la citada sociedad, por importe de 30,00 miles de euros.
- ◆ En el programa “**Ordenación y Promoción de Pasaialdea**” (102,78 miles de euros), caben destacar las siguientes subvenciones:
 - Fomento de San Sebastián, S.A. 2017 (9,71 miles de euros) con el objeto de financiar parcialmente los gastos derivados del proyecto denominado Smart Commerce San Sebastian Este.
 - Oarsoaldea, S.A. (93,06 miles de euros) con el objeto de financiar parcialmente la ejecución de diversas actuaciones.

El **Capítulo VI** tiene un presupuesto de 8.861,24 miles de euros y una ejecución de 3.608,90 miles de euros (40,73%).



Kapitulu honetan hurrengo hauek dira nabarmenak:

“Bikleta bideak” programan, “Amute-Bidasoako Eskualde Hospitala” partida, 1.162,89 mila eurokoa eta “Bidegorriak eraikitzea” partida, 73,09 mila eurokoa.

- ◆ **“Lurraldearen Antolaketa”** programan (487,97 mila eurokoa), “Datu espazialen azpiegitura” izeneko partida bakarra dago.
- ◆ **“Arkitektura”** programan (1.254,79 mila euro), “Foru Aldundiaren eraikinetako obrak” partida (1.211,47 mila euro) eta “Eraikinak. Inbertsio proiektuak” partida (43,32 mila euro).
- ◆ **“Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketako Zerbitzu Orokorrak”** programan (365,80 mila euro) “Aplikazio informatikoak. IZFE” partida dago 314,98 mila eurokoa.

VII. kapituluak 5.126,14 mila euroko aurrekontua du eta bere exekuzioa 2.709,38 mila eurokoa da (%52,85).

Kapitulu honetan esanguratsua da:

- ◆ **“Pasaialdeko Antolaketa eta Sustapena”** programan (2.355,91 mila euro), azpimarratzeko da hurrengo udal hauei emandako dirulaguntza izendunak, inbertsioen gauzatzea finantzatzeko:
 - Erreneriako Udal, 858,00 mila eurokoa.
 - Pasaiako Udal, 574,68 mila eurokoa.
 - Oiartzungo Udal, 185,30 mila eurokoa.
 - Lezoko Udal, 75 mila eurokoa.
 - Pasaiako Udal. Ondartxo-Donibane, 522 mila eurokoa.
- ◆ **“Bikleta bideak”** programan (140,49 mila euro) partida bakarra dago “bikleten eta

En este capítulo destacan los siguientes:

En el programa **“Vías Ciclistas”** la partida “Amute-Hospital Comarcal del Bidasoa” por importe de 1.162,89 miles de euros y la partida “Construcción de vías ciclistas”, por importe de 73,09 miles de euros.

- ◆ Dentro del programa **“Ordenación del Territorio”** (487,97 miles de euros), encontramos una única partida denominada “Infraestructura de datos espaciales”.
- ◆ En el programa **“Arquitectura”** (1.254,79 miles de euros), la partida de “Obras en edificios forales”, por importe de 1.211,47 miles de euros y la partida “Edificios. Proyectos de inversión”, por importe de 43,32 miles de euros.
- ◆ En el programa **“Servicios Generales de Movilidad y Ordenación del Territorio”** (365,80 miles de euros) se encuentra la partida relativa a “Aplicaciones informáticas. IZFE” por importe de 314,98 miles de euros.

El **Capítulo VII** tiene un presupuesto de 5.126,14 miles de euros y una ejecución de 2.709,38 miles de euros (52,85%).

En este capítulo cabe destacar:

- ◆ En el programa **“Ordenación y Promoción de Pasaialdea”** (2.355,91 miles de euros), caben destacar las subvenciones nominativas concedidas a los siguientes ayuntamientos, para financiar la ejecución de inversiones:
 - Ayuntamiento de Erreneria, por importe de 858,00 miles de euros.
 - Ayuntamiento de Pasaia, por importe de 574,68 miles de euros.
 - Ayuntamiento de Oiartzun, por importe de 185,30 miles de euros.
 - Ayuntamiento de Lezo, por importe de 75 miles de euros.
 - Ayuntamiento de Pasaia Ondartxo-Donibane, por importe de 522 miles de euros.
- ◆ En el programa **“Vías Ciclistas”** (140,49 miles de euros) encontramos una única partida



oinezkoen bideen udal sarea” Gipuzkoako Lurralde Historikoan bizikleten eta oinezkoen bideen udal sarea garatzeko.

denominada “red municipal de vías ciclistas” para el desarrollo de la red municipal de vías ciclistas y peatonales en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

Departamentuaren kudeaketako aurrekontu propioa **58.115,11** mila eurokoa da, eta **44.392,63** mila euroko obligazioak onartu dira, hau da, **%76,39**.

KAPITULUEN ANALISIA eginda, hurrengoa ondorioztatzen da:

II. kapituluak 4.438,98 mila euroko aurrekontua du, eta bere exekuzioa 4.226,18 mila eurokoa da (%95,21).

Kapitulu honetan nabarmenak dira:

- ♦ “**Ogasuneko eta Finantzetako Zerbitzu Orokorrak**” programan (3.454,22 mila euro):
 - Posta, telegrafo eta telex bidezko komunikazioetan erabili diren kantitateak, 1.132,20 mila euro.
 - Garbiketan erabili diren kantitateak, 710,37 mila euro.
 - Datuen grabaketa zerbitzuetan erabili diren kantitateak, 333,65 mila euro.
 - Segurtasunean erabili diren kantitateak, 251,81 mila euro.
 - Energia elektrikoan erabili diren kantitateak, 203,03 mila euro.
- ♦ “**Herritarren Arreta eta Zerga Heziketa**” programan (391,17 mila euro) nabarmentzeoak dira herritarrei informazioa eta arreta emateko zerbitzuari zuzendutako kopuruak, 365,24 mila euro.

IV. kapituluak 20,30 mila euroko aurrekontu propioa du, eta bere exekuzioa 15,35 mila eurokoa da (%75,61). “**Herritarren Arreta eta Zerga Heziketa**” programan (14,72 mila euro) EHU-ri onartutako dirulaguntza izenduna Udako

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Con un presupuesto propio de gestión de **58.115,11** miles de euros, ha reconocido obligaciones por importe de **44.392,63** miles de euros, esto es, un **76,39 %**.

Realizando un **ANÁLISIS POR CAPÍTULOS** llegamos a las siguientes conclusiones:

El **Capítulo II** tiene un presupuesto de 4.438,98 miles de euros y una ejecución de 4.226,18 miles de euros (95,21%).

En este capítulo destacan:

- ♦ En el programa “**Servicios Generales de Hacienda y Finanzas**” (3.454,22 miles de euros):
 - Las cantidades destinadas a comunicaciones postales, telegráficas y telex, por importe de 1.132,20 miles de euros.
 - Las cantidades destinadas a limpieza, por importe de 710,37 miles de euros.
 - Las cantidades destinadas a servicios de grabación de datos, por 333,65 miles de euros.
 - Las cantidades destinadas a seguridad, por 251,81 miles de euros.
 - Las cantidades destinadas a energía eléctrica, por importe de 203,03 miles de euros.
- ♦ En el programa “**Atención ciudadana y Educación Tributaria**” (391,17 miles de euros) destacan las cantidades destinadas a servicios de información y atención a la ciudadanía, por importe de 365,24 miles de euros.

El **Capítulo IV** tiene un presupuesto propio de 20,30 miles de euros, y una ejecución de 15,35 miles de euros (75,61%). Son significativas dentro del programa “**Atención ciudadana y Educación Tributaria**”(14,72 miles de euros) la subvención



ikastaroak xede izanik, 8,59 mila eurokoa, eta zerga-sistema kontuetan ideia berritzaleengatiko pertsona fisikoentzako sariak finantzatzeko dirulaguntza, 6,13 mila eurokoa.

VI. kapituluak 9.935,55 mila euroko aurrekontua du, eta bere exekuzioa 6.797 mila eurokoa da (%68,41).

Gauzatze-mailari dagokionez, kontuan hartu behar da alde batetik informatikako zerbitzuen fakturazioan eta ordainketan izandako atzerapena, eta, bestetik, konkursos-prozesuetan eta dirubilketak prozesuetan ondasunen esleipena finantzatzeko gaitu diren eta beharrezkoa bada bakarrik erabiliko diren bi partida izan direla.

Kapitulu honetan esanguratsuak dira:

- ◆ **Ogasuneko eta Finantzetako Zerbitzu Orokorrak** programan (4.825,46 mila euro):
 - “Aplikazio informatikoak. IZFE” partida, 3.765,49 mila euroko zenbatekoan.
 - Errrotaburu 1eko, 9. eta 10. solairuetako birgaitze obretara zuzendutako partida, 719 mila euro.
- ◆ **Zerga Administrazioa** programan (1.971,55 mila euroko kopurua):
 - “IZFE.Zerga-plataforma berria: ZERGA” partida, (589,96 mila euro).
 - Proiektu kontua (764,46 mila eurokoak).
 - Iruzurraren aurka (476,66 mila eurokoak).

VIII. kapituluak 9,06 mila euroko aurrekontua du, eta ez du gauzatze mailarik.

BIDE AZPIEGITURETAKO DEPARTAMENTUA

Departamentuaren aurrekontu osoa **82.033,68** mila eurokoa da, eta **71.717,43** mila euroko obligazioak onartu ditu, hau da, **%87,42**.

nominativa a la UPV con destino a los cursos de verano por importe de 8,59 miles de euros y la subvención para la financiación de premios a personas físicas por ideas innovadoras en materia de fiscalidad, por importe de 6,13 miles de euros.

El **Capítulo VI** tiene un presupuesto total de 9.935,55 miles de euros, y una ejecución de 6.797 miles de euros (68,41%).

El grado de ejecución obedece al retraso en la facturación y abono de los servicios informáticos por un lado y, por otro, a la habilitación de dos partidas dirigidas a financiar la adjudicación de bienes en procesos concursales y de recaudación que solo se utilizan en caso necesario.

En este capítulo destacan:

- ◆ En el programa “**Servicios Generales de Hacienda y Finanzas**” (4.825,46 miles de euros):
 - La partida “Aplicaciones informáticas. IZFE”, por importe de 3.765,49 miles de euros.
 - La partida destinada a la financiación de las obras de rehabilitación de las plantas 9^a y 10^a de Errrotaburu 1 por importe de 719 miles de euros.
- ◆ En el programa “**Administración Tributaria**” (1.971,55 miles de euros):
 - La partida “IZFE.Nueva plataforma tributaria ZERGA” (589,96 miles de euros).
 - Proyecto Kontua (764,46 miles de euros).
 - Lucha contra el fraude (476,66 miles de euros).

El **Capítulo VIII** tiene un presupuesto total de 9,06 miles de euros y no presenta ejecución.

DEPARTAMENTO DE INFRAESTRUCTURAS VIARIAS

Con un presupuesto total de importe **82.033,68** miles de euros, ha reconocido obligaciones por un importe de **71.717,43** miles de euros, esto es, un **87,42%**.



KAPITULUEN ANALISIA eginda, hurrengoa ondorioztatzen da:

II. kapituluak 5.271,80 mila euroko aurrekontua du eta bere exekuzioa 4.839,20 mila eurokoa izan da (%91,79).

Kapitulu honetan hurrengo hauek dira esanguratsuak:

- ◆ “**Bide Azpiegituretako Zerbitzu Orokorrak**” programan, (479,21 mila euro):
 - Epe luzera garraio materialaren kontu-saila. Partida honetan 143,68 mila euroko obligazioak onartu dira.
 - Zerbitzu publikoen funtzionamenduagatik eman beharreko kalteordainei bideratutako kontu-saila. Partida honetan 128,18 mila euroko obligazioak onartu dira.
- ◆ “**Errepideak artatzea**” programan (3.955,90 mila euro), energia elektrikoa kontu-saila. Partida honetan 2.465 mila euroko obligazioak onartu dira.

VI. kapituluak 62.744,27 mila euroko aurrekontua du, eta bere exekuzioa 59.075,54 mila eurokoa da (%94,15).

Kapitulu honetan hurrengo hauek dira nabarmenekoak:

- ◆ “**Errepideak Artatzea**” programan (39.308,65 mila euroko obligazioak onartu dira):
 - Tunelen instalazio elektrikoak eta segurtasuneko mantentze lanak (3.644 mila euro).
 - Tuneletan Zuzentaraua Europaz ekipamenduaren moldaketa (5.982,68 mila euro).
 - Goierrialdeako errepideen artapena eta ustiapena (6.313,23 mila euro).
 - Donostialdea eta Bidasoaldeako errepideen artapena eta ustiapena (4.980,26 mila euro).

Realizando un **ANÁLISIS POR CAPÍTULOS** llegamos a las siguientes conclusiones:

El **Capítulo II** tiene un presupuesto de 5.271,80 miles de euros y una ejecución de 4.839,20 miles de euros (91,79%).

En este capítulo destacan:

- ◆ En el programa “**Servicios Generales de Infraestructuras Viarias**” (479,21 miles de euros):
 - La partida de material de transporte a largo plazo, en la que se han reconocido obligaciones por importe de 143,68 miles de euros.
 - La partida destinada a las Indemnizaciones por el funcionamiento de servicios públicos en la que se han reconocido obligaciones por importe de 128,18 miles de euros.
- ◆ Dentro del programa “**Conservación de Carreteras**” (3.955,90 miles de euros), la partida destinada a energía eléctrica, en la que se han reconocido obligaciones por importe de 2.465 miles de euros.

El **Capítulo VI** tiene un presupuesto de 62.744,27 miles de euros, una ejecución de 59.075,54 miles de euros (94,15%).

En este capítulo destacan:

- ◆ En el programa “**Conservación de Carreteras**” (se han reconocido obligaciones por importe de 39.308,65 miles de euros):
 - Trabajos mantenimiento instalaciones eléctricas y de seguridad en túneles (3.644 miles de euros).
 - Adaptación de equipamiento en túneles a la directiva europea (5.982,68 miles de euros).
 - Conservación y explotación de carreteras de Goierrialdea (6.313,23 miles de euros).
 - Conservación y explotación de carreteras de Donostialdea y Bidasoaldea (4.980,26 miles de euros).



- Urola-Kosta eta Deba Kostako errepideen artapena eta ustiapena (4.744,36 mila euro).
 - Ekialdeko errepideen artapena eta ustiapena (3.941,90 mila euro).
 - Mendebaldeko errepideen artapena eta ustiapena (3.523,48 mila euro).
 - Bide segurtasuna Errepideen Foru Sarean (928,76 mila euro).
- ◆ “**Presako Inbertsioak, Prebentzioa eta Konponketak**” programan (16.971,51 mila euroko obligazioak onartu dira):
- Lehentasunezko Sareko errepideetako zoruaren egitura birgaitzea (2.344,01 mila euro).
 - Errepideen Foru Sarean lauguneen hobekuntza (4.530,26 mila euro).
 - Eskualdeko sareko errepideen zoruaren egitura birgaitzea (2.135,84 mila euro).
 - Foru errepide sareko egiturak birgaitzea (1.127,95 mila euro).
 - “Bikoiztuetan gainazala birgaitzea” partida (1.332,86 mila eurokoak).
 - Mendebaldeko eskualde sareko eta sare lokaleko errepideen birgaitzea (635,61 mila euro).
 - GI-3361 Laugunea hobetzea (1.539,47 mila euro).
 - Sare lokaleko errepideen zoruaren egitura birgaitzea (687,06 mila euro).
- Conservación y explotación de carreteras de Urola-Kosta y Deba-Kosta (4.744,36 miles de euros).
 - Conservación y explotación de carreteras de Ekialdea (3.941,90 miles de euros).
 - Conservación y explotación de carreteras de Mendebaldea (3.523,48 miles de euros).
 - Seguridad vial en la Red Foral de Carreteras (928,76 miles de euros).
- ◆ En el programa “**Inversiones Urgentes, Prevención y Reparación**” (se han reconocido obligaciones por importe de 16.971,51 miles de euros):
- Rehabilitación estructural carreteras Red Interes Preferente (2.344,01 miles de euros).
 - Mejora de explanaciones en la red Foral (4.530,26 miles de euros).
 - Rehabilitación estructural de carreteras de la Red Comarcal (2.135,84 miles de euros).
 - Rehabilitación de estructuras de la Red Foral de Carreteras (1.127,95 miles de euros).
 - La partida “Rehabilitación superficial desdobladas” (1.332,86 miles de euros).
 - Rehabilitación superficial de las carreteras de la Red comarcal y local de Mendebaldea (635,61 miles de euros).
 - La mejora de la explanación de la carretera GI-3361. (1.539,47 miles de euros).
 - Rehabilitación estructural del firme en carreteras de la Red local (687,06).

VII. kapituluak 6.150 mila euroko aurrekontua du, eta ez du gauzatze mailarik.

GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUA

Departamentuaren aurrekontu propioa **376.904,74** mila euroka da, eta **373.834,71** mila euroko obligazioak onartu ditu, hau da, **%99,19**.

El **Capítulo VII** tiene un presupuesto total de 6.150 miles de euros y no presenta ejecución.

DEPARTAMENTO DE POLÍTICAS SOCIALES

Con un presupuesto propio de **376.904,74** miles de euros, ha reconocido obligaciones por **373.834,71** miles de euros, esto es, un **99,19%**.



KAPITULUEN ANALISIA eginda, hurrengoa ondorioztatzen da:

II. kapituluak 67.614,25 mila euroko aurrekontua du, eta bere exekuzioa 67.186 mila eurokoa da (%99,37).

Kapitulu honetan bereziki nabarmenzekoak dira zerbitzu asistentzialak emateko kopuruak:

- ◆ “**Haur eta nerabeen babesia**” programan, zerbitzu asistentzial horiek emateko kopurua 32.127,53 mila eurokoa da.
- ◆ “**Adinekoen laguntza**” programan, zerbitzu asistentzialak emateko, kopurua 21.308,33 mila eurokoa da.
- ◆ “**Foru Erakunde Publikoak Kudeaketa**” programan, kopurua 5.290,02 mila eurokoa da.
- ◆ “**Desgaituen laguntza**” programan, kopurua 4.970,54 mila eurokoa da.

Hona hemen kopuru nagusiak:

Realizando un **ANÁLISIS POR CAPÍTULOS** llegamos a las siguientes conclusiones:

El **Capítulo II** tiene un presupuesto de 67.614,25 miles de euros y una ejecución de 67.186 miles de euros (99,37%).

En este capítulo destacan las cantidades destinadas a la prestación de servicios de carácter asistencial:

- ◆ En el programa “**Protección a la Infancia y la adolescencia**”, las cantidades destinadas a esta prestación de servicios de carácter asistencial ascienden a un total de 32.127,53 miles de euros.
- ◆ En el programa “**Atención a personas Mayores**”, las cantidades destinadas a esta prestación de servicios de carácter asistencial, ascienden a un total de 21.308,33 miles de euros.
- ◆ En el programa de “**Gestión de Organismos Públicos Forales**”, por importe de 5.290,02 miles de euros.
- ◆ En el programa “**Atención a Personas con Discapacidad**”, por importe de 4.970,54 miles de euros.

Detallamos las cantidades más destacadas:

	O
Gizarte babesik gabeko adingabeentzako zaintzarako zentroen kudeaketa/ Gestión de centros de guarda para menores en situación de desprotección	18.426,91
Adinekoentzako egoitza zentroen, unitate psikogeriatrikoen eta eguneko zentroen kudeaketa/ Gestión centros residenciales, unidades psicogeriatricas y centros de día para personas mayores	15.408,26
Familia esku-hartzeko programak/ Programas de intervención familiar	4.498,21
Adingabeak familietai hartzeko laguntzak/ Apoyo al acogimiento familiar de menores	2.904,51
Eibarko Egogain zentro gerontologikoaren kontratuak/ Contratos del Centro Gerontológico Egogain de Eibar	2.707,55

(Mila eurokoak/ Miles de euros)

IV. kapituluak 283.465,28 mila euroko aurrekontu propioa du, eta bere exekuzioa 282.199,63 mila eurokoak da (%99,55).

El **Capítulo IV** tiene un presupuesto propio de 283.465,28 miles de euros y una ejecución de 282.199,63 (99,55%).



Kapitulu honetan nabarmenak dira:

- ◆ “**Adinekoen laguntza**” programan, (93.482,87 mila eurokoak):

- Egoitzetan eta eguneko zentroetan adineko menpeko pertsonen aldeko hitzarmenei zuzendutako kopuruak hurrengo hauek dira:

En este capítulo destacan:

- ◆ En el programa “**Atención a personas mayores**”, (93.482,87 miles de euros):

- Las cantidades destinadas a los distintos convenios dedicados a la atención de personas mayores dependientes, tanto en centros residenciales como en centros de día, son las siguientes:

EGOITZAK / RESIDENCIAS		O
Hitzarmenak udal organismoekin eta udalekin/ Convenios con ayuntamientos y organismos municipales		16.216,99
Hitzarmenak: irabazi asmorik gabeko erakundeak/ Convenios con instituciones sin fines de lucro		25.662,71
Hitzarmenak empresa pribatuekin/ Convenios con empresas privadas		22.341,49

(Mila eurokoak/ Miles de euros)

EGUNEKO ZENTROAK / CENTROS DE DÍA		O
Hitzarmenak udal organismoekin eta udalekin/ Convenios con ayuntamientos y organismos municipales		6.860,79
Hitzarmenak: irabazi asmorik gabeko erakundeak/ Convenios con instituciones sin fines de lucro		3.870,06
Hitzarmenak empresa pribatuekin/ Convenios con empresas privadas		5.445,60

(Mila eurokoak/ Miles de euros)

- Etxez etxeko laguntza zerbitzura 9.620,53 mila euro zuzendu dira.

- Al servicio de ayuda domiciliaria se destinan 9.620,53 miles de euros.

- ◆ “**Gizarteratzea eta indarkeria matxitaren emakume biktima babesia**” programan (24.262,55 mila euro):

- ◆ En el programa “**Protección a la Mujer Víctima de Violencia Machista y de Inclusión Social**”, (24.262,55 miles de euros):

- Gizarteratze-bizileku en arloan hitzartutako jardueretarako, gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonak gizarteratzeko programak, eguneko eta gaueko programak 15.536,38 mila eurokoak.

- Gureak Lanean, S.A.-ren aldeko 6.740,42 mila euroko dirulaguntza izenduna.

- Las cantidades destinadas a actividades concertadas en materia de alojamientos, programas de inserción social para personas en situación de exclusión social, centros de día y de noche por importe de 15.536,38 miles de euros.

- ◆ “**Foru Erakunde Publikoak Kudeaketa**” programan”, (29.220,78 mila eurokoak):

- Desgaitasun psikiko larria edo sakona dutenentzat zaintza osoa emateko,

- ◆ En el programa “**Gestión de Organismos Públicos Forales**”, (29.220,78 miles de euros):

- La transferencia a favor de la Fundación Uliazpi, para la atención integral a personas



Uliazpi Fundazioaren alde 16.250,89 mila euroko transferentzia.

- Adineko mendeko pertsonei egoítza zerbitzua eta eguneko zentroko zerbitzua emateko, Kibia Foru Organismo Autonomoaren alde, 12.969,89 mila euroko transferentzia.
- ◆ “Haur eta nerabeen babes” programan, (13.140,12 mila eurokoak):
 - Gizarteratze babesik gabe eta, legeari jarraituz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren zaintzan dauden adingabeak hartzen dituzten elkarteekin hitzartutako jardueretarako, 9.155,22 mila euroko kopurua.
 - Laguntza ekonomikoak adingabekoan babes, garapen personala eta gizarteratzea bultzatzeko, 3.608,68 mila euro.
- ◆ En el programa “Protección a la Infancia y la adolescencia”, (13.140,12 miles de euros):
 - Las cantidades destinadas al cumplimiento de Convenios con entidades dedicadas a la guarda de menores en situación de desamparo y bajo una medida de protección legal encomendada a la Diputación, por importe de 9.155,22 miles de euros.
 - Ayudas económicas destinadas a favorecer la protección, desarrollo personal e integración social de los menores, por importe de 3.608,68 miles de euros.

VI. kapituluak 5.845,20 mila euroko aurrekontua du, eta bere exekuzioa 5.282,56 mila eurokoa da (%90,37). Kapítulo hau soilik “Inbertsioen eta gizarte lankidetzaren plana” programan dago eta nabarmenak hurrengo hauek dira:

- Aplikazio informatikoak kontu-sailak, 1.856,18 mila euroko kopuruarekin.
- Egokitzapen eta hobekuntza obrak Departamentuari atxikitako eta lagatutako zentroetan buruzko kontu-saila, 2.198,80 mila euroko kopuruarekin.
- Altzarien erosketa: 183,48 mila eurokoa Departamentuko zentroetarako eta 110,55 mila eurokoa departamentuko bulegoetarako.
- Desgaituentzako laguntza produktuen hornidura kontratuaren gastuak, 368,13 mila euro.
- Eraikinen obra proiektuak idaztea 154,81 mila euro.
- Txara-2 zentroa erosteko urteko gastuak, 187,03 mila euro.

con discapacidad psíquica severa y/o profunda, por importe de 16.250,89 miles de euros.

- La transferencia a favor de Kibia Foru Organismo Autonomos, destinada a la prestación de servicios residenciales y centros de día para personas mayores dependientes, por importe de 12.969,89 miles de euros.

◆ En el programa “Protección a la Infancia y la adolescencia”, (13.140,12 miles de euros):

- Las cantidades destinadas al cumplimiento de Convenios con entidades dedicadas a la guarda de menores en situación de desamparo y bajo una medida de protección legal encomendada a la Diputación, por importe de 9.155,22 miles de euros.
- Ayudas económicas destinadas a favorecer la protección, desarrollo personal e integración social de los menores, por importe de 3.608,68 miles de euros.

El **Capítulo VI** tiene un presupuesto de 5.845,20 miles de euros y una ejecución de 5.282,56 miles de euros (90,37%). Se encuentra localizado exclusivamente en el Programa “Plan de inversiones y cooperación social”, en las que destacan los siguientes:

- Las partidas de aplicaciones informáticas, por importe de 1.856,18 miles de euros.
- La partidas de obras de acondicionamiento y mejora en Centros adscritos y cedidos al Departamento por importe de 2.198,80 miles de euros.
- La adquisición de mobiliario para los centros del Departamento por importe de 183,48 miles de euros y de 110,55 miles de euros para las oficinas del Departamento.
- Contrato de suministro de productos de apoyo para personas con discapacidad, por importe de 368,13 miles de euros.
- Redacción de proyectos de obras para edificios, por importe de 154,81 miles de euros.
- Anualidad por la adquisición del Centro Txara-2, por importe de 187,03 miles de euros.



VII. kapituluak 5.698,04 mila euroko aurrekontua du, eta bere exekuzioa 5.377,37 mila eurokoa da (%94,37).

Kapitulu honetan hurrengo hauek dira esanguratsuak:

♦ “**Inbertsioen eta gizarte lankidetzaren plana**” programan, (4.482,37 mila euro):

- Inbertsiorako laguntzak zentro berriak sortzeko 996,22 mila euroko kopuruarekin.
- Inbertsioetarako laguntzak moldaketak burutzeko 1.125,91 mila euroko kopuruarekin.
- Desgaitasuna duten pertsonentzako laguntza produktuak eskuratzeko dirulaguntzak, 1.403,66 mila euro.
- Katea Legaia S.L.-ri emandako dirulaguntza izenduna enplegarako zentro berezia erosi eta egokitzeko, 280 mila euroka.

♦ “**Foru Erakunde Publikoak Kudeaketa**” programan, (895 mila eurokoak):

- Hainbat inbertsio egiteko Uliazpi Fundazioaren alde 595 mila euroko transferentzia.
- Hainbat inbertsio egiteko Kabiaren alde 300 mila euroko transferentzia.

INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULICOETAKO DEPARTAMENTUA

Departamentuaren aurrekontu osoa **25.323,35** mila euroka da, eta 21.554,43 mila euroko obligazioak onartu ditu, hau da, **% 85,11**.

KAPITULUEN ANALISIA eginda, hurrengoa ondorioztatzen da:

II. kapituluak 4.561,73 mila euroko aurrekontua du eta bere exekuzioa 4.233,29 mila eurokoa da (%92,80).

El **Capítulo VII** tiene un presupuesto de 5.698,04 miles de euros y una ejecución de 5.377,37 miles de euros (94,37%).

En este capítulo destacan:

♦ En el programa “**Plan de inversiones y cooperación social**” (4.482,37 miles de euros):

- Las ayudas a la inversión para la creación de nuevos centros, 996,22 miles de euros.
- Las ayudas a la inversión para la realización de reformas por importe de 1.125,91 miles de euros.
- La aportación económica para la adquisición por personas con discapacidad de productos de apoyo, 1.403,66 miles de euros.
- Las subvención nominativa a Katea Legaia S.L. para la adquisición y adecuación de un centro especial de empleo, por importe de 280 miles de euros.

♦ En el programa “**Plan de Gestión de Organismos Públicos Forales**” (895 miles de euros):

- La transferencia a favor de Fundación Uliazpi, para inversiones diversas, por importe de 595 miles de euros.
- La transferencia a favor de Kobia, para inversiones diversas, por importe de 300 miles de euros.

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS

Con un presupuesto total de importe **25.323,35** miles de euros, ha reconocido obligaciones por un total de 21.554,43 miles de euros; es decir, **85,11%**.

Realizando un **ANÁLISIS POR CAPÍTULOS** llegamos a las siguientes conclusiones:

El **Capítulo II** tiene un presupuesto de 4.561,73 miles de euros y una ejecución de 4.233,29 miles de euros (92,80 %).



Kapitulu honetan nabarmenak dira:

- ◆ “**Hondakin eta ondartzak**” programan (2.494,74 mila eurokoak):
 - “CLUSTER (GKRecycling-GkGreeN Fashion)” buruzko kontu-saila, 254,71 mila euro.
 - “Erakusketak eta lehiaketak” kontu-saila, 321,05 mila euro.
 - “Azterlan epidemiologikoaren (Biodonostia)” kontu-saila, 200,99 mila euro.
 - “Hondartzen kudeaketa integralara” zuzendutako kontu-saila 1.168,61 mila euro.
- ◆ “**Iraunkortasuna**” programan (259,40 mila euro), “Erakusketak eta lehiaketak” (89,57 mila euro), “Gipuzkoa Naturaldia” (48,33 mila euro) eta “ Tokiko Agenda 21eko diagnosiak garatzeko azterketak” (69,21 mila euro) gauzatzeko zuzendutako kontu-sailak.
- ◆ “**Energia iraunkorra**” programan (252,99 mila euro), “Azterlanak eta irizpenak eraikuntzak energia” (43,58 mila euro) eta “Energia ekitaldiak” (120,93 mila euro) burutzeko kontu-sailak.
- ◆ “**Aldaketa Klimatikoa**” programan (334,81 mila euro), “Azterlanak eta irizpenak” eta “Erakusketak eta lehiaketak” partidak, 288,52 mila eurokoak eta 46,30 mila eurokoak, hurrenez hurren.
- ◆ “**Ur baliabideak eta uraren kalitatea**” programan (242,96 mila eurokoak), “Aforalekuak, uren kalitate estazioen mantentze lanak” eta “Azpiegitura hidraulikoko mantenimendua” kontu-sailak, 92,78 mila euro eta 72,52 mila eurokoak, hurrenez hurren.
- ◆ “**Ingurumena**” programan, (326,14 mila euro), “Azterlanak eta irizpenak” eta “Erakusketak eta lehiaketak” kontu-sailak, 83,16 mila euro eta 94,66 mila eurokoak, hurrenez hurren, eta “Departamentuaren komunikazioa”-ri buruzkoa 78,65 mila eurokoak.

En este capítulo destacan:

- ◆ En el programa “**Residuos y playas**” (2.494,74 miles de euros):
 - La partida del Cluster (GKRecycling-GkGreeN Fashion), por importe de 254,71 miles de euros.
 - La partida de “Exposiciones y certámenes”, por importe de 321,05 miles de euros.
 - La partida destinada al estudio epidemiológico (Biodonostia), por importe de 200,99 miles de euros.
 - La partida destinada a “Gestión integral de playas”, por importe de 1.168,61 miles de euros.
- ◆ En el programa “**Sostenibilidad**” (259,40 miles de euros), las partidas destinadas a “Exposiciones y certámenes” (89,57 miles de euros), a “Gipuzkoa Naturaldia” (48,33 miles de euros), y a “Estudios desarrollo diagnósticos AL 21” (69,21 miles de euros).
- ◆ En el programa “**Energía sostenible**” (252,99 miles de euros), las partidas destinadas a “Estudios y dictámenes energía edificios” (43,58 miles de euros) y “Eventos energía” (120,93 miles de euros).
- ◆ En el programa “**Cambio Climático**” (334,81 miles de euros), las partidas destinadas a “Estudios y dictámenes” y a “Exposiciones y certámenes”, por importe de 288,52 miles de euros y de 46,30 miles de euros, respectivamente.
- ◆ En el programa “**Recursos y calidad del agua**” (242,96 miles de euros), las partidas destinadas a “Mantenimiento estaciones de aforo y calidad de las aguas” y a “Mantenimiento infraestructura hidráulica” por importe de 92,78 miles de euros y de 72,52 miles de euros, respectivamente.
- ◆ En el programa “**Medio Ambiente**” (326,14 miles de euros) las partidas destinadas a “Estudios y dictámenes” y a “Exposiciones y certámenes”, por importe de 83,16 miles de euros y de 94,66 miles de euros, respectivamente y la relativa a “Comunicación del Departamento”, por importe de 78,65 miles de euros.



IV. kapituluak 2.132,48 mila euroko aurrekontua du eta bere exekuzioa 1.992,58 mila eurokoa da (%93,44%).

Kapitulu honetan, nabarmenak, hauek dira:

- ◆ “**Hondakin eta hondartzak**” programan (1.219,82 mila eurokoak), ondorengo partidak:
 - Hiri hondakinen prebentzio arloko dirulaguntza lerroa, 308,17 mila eurokoa.
 - Elikagaiaiak bildu eta banatzeko, Gipuzkoako Elikagaien Bankuari transferitutako dirulaguntza izenduna, 200 mila eurokoa.
 - Hondartzak garbitzeko, Donostiako Udalari transferitutako dirulaguntza izenduna, 150,00 mila eurokoa.
 - Europar Batasuneko herrialdeei zuzendutako dirulaguntzak 371,75 mila euroko kopurua guztira.

“**Energia iraunkorra**” programan (344,62 mila euro), eskualdeko energia planak sustatzeko dirulaguntzak, 240,94 mila euro guztira.

- ◆ “**Aldaketa Klimatikoa**” programan (374,53 mila euro) Gipuzkoako Aldaketa Klimatikoaren Fundazioari emandako dirulaguntza 340,53 mila euro.

VI. kapituluak 7.954,82 mila euroko aurrekontua du eta bere exekuzioa 5.131,32 mila eurokoa da (%64,50%).

Kapitulu honetan esanguratsuak hurrengo hauek dira:

- ◆ “**Energia Iraunkorra**” programan (1.471,22 mila euro), hurrengo partida hauek:
 - Eraginkortasun energetikoa hobetzeko obrak – Tolosako Artxiboa 630,34 mila euro.
 - Foru eraikuntzetan eraginkortasun energetikoa hobetzeko obrak, 150,70 mila euro.

El **Capítulo IV** tiene un presupuesto de 2.132,48 miles de euros y una ejecución de 1.992,58 miles de euros (93,44%).

En este capítulo destacan:

- ◆ En el programa “**Residuos y playas**” (1.219,82 miles de euros), las partidas destinadas a:
 - Las líneas de ayuda para la prevención de los residuos urbanos, por importe de 308,17 miles de euros.
 - La subvención nominativa al Banco de Alimentos de Gipuzkoa por la recogida y distribución de alimentos por importe de 200 miles de euros.
 - La subvención nominativa al Ayuntamiento de Donostia para la limpieza de playas, por importe de 150,00 miles de euros.
 - Las subvenciones con destino a países de la Unión Europea por un importe total de 371,75 miles de euros.

En el programa “**Energía sostenible**” (344,62 miles de euros), las subvenciones para planes comarciales de energía por un importe total de 240,94 miles de euros.

- ◆ En el programa “**Cambio Climático**” (374,53 miles de euros), la subvención concedida a la Fundación de Cambio Climático de Gipuzkoa por importe de 340,53 miles de euros.

El **Capítulo VI** tiene un presupuesto de 7.954,82 miles de euros y una ejecución de 5.131,32 miles de euros (64,50 %).

En este capítulo destacan:

- ◆ En el programa “**Energía Sostenible**” (1.471,22 miles de euros), las partidas destinadas a:
 - Las obras de mejora de eficiencia energética - Archivo de Tolosa por importe de 630,34 miles de euros.
 - Obras de mejora de eficiencia energética edificios forales, por importe de 150,70 miles de euros.



- Eraginkortasun energetikoa hobetzeko obrak besteren ibilgetuetan, 413,54 mila euro.
 - ◆ “**Azpiegitura Hidraulikoak**” programan (1.258,54 mila euro):
 - Saneamenduaren lanak, 2015ean Gipuzkoako Ur Kontsortzioarekin sinatutako Hitzarmenaren arabera, 842,32 mila euro.
 - Hornidura eta saneamenduko proiektuak, 317,07 mila euro.
 - ◆ “**Ur baliabideak eta uraren kalitatea**” programan (1.085,69 mila euro), ondorengo partidak:
